



ENPRESARIEN KONFIANTZA

Enpresen konfiantzak gora egin zuen laugarren hiruhilekoari begira

INEk argitaratutako estatistikaren arabera, EAEko enpresek egoera ekonomikoarekiko konfiantza zertxobait hobetu dute. Hain zuzen ere, institutu horrek egiten duen indizea laugarren hiruhilekoan 101,9an kokatu zen, hots, aurreko bi hiruhilekoetan erregistratutako datuen gainetik. Hala eta guztiz ere, oso urrun dago aurreko urteetan erregistratutako balioetatik, eta baita 2020. urtearen hasieran izandako mailetatik ere,


garai horietan 130 eta 140 puntu arteko tartean egon zelako.

Amaitu berri den hiruhilekoarekiko iritzi gehienak ezkorrak dira, eta saldoa -45,7 da, aurreko balioa baino hamabi puntu gorago. Bestalde, hasi berri den hiruhilekoari dagozkion igurikimeneak -41,0 puntuko saldoa ematen dute, eta kasu honetan, hirugarren hiruhilekoari dagokiona baino zortzi puntu hobea da.


ENPRESARIEN KONFIANTZA INDIZE HARMONIZATUA. EUSKADI

2020KO LAUGARREN HIRUHILEKOA


102



AMAITU BERRI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA




HASI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA




EAEko enpresek estatistika horretan duten posizioa eta Espainiako gainerako enpresek dutena ez dira oso desberdinak. Hala, Estatuko indizea hamar puntu igo da eta 105,5ean kokatu da, urtea hasi zeneko balioetik (131) oso urrun. Amaitu berri den hiruhilekoari buruzko iritziak nabarmen hobetu ziren aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, saldoa -62,8 izatetik -38,8 izatera igaro baitzen. Hala ere, hasi berri den hiruhilekoarekiko igurikimenak ez dira hain onak, eta hobekuntza lau puntura mugatzen da, hau da, -47,2tik -41,3ra. Koronabirusaren bigarren olatuaren larritasunak susperraldi azkarraren itxaropenak geldiarazi ditzake.


ENPRESARIEN KONFIANTZA INDIZEA ESPAINIA



AMAITU BERRI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA. ESPAINIA



HASI DEN HIRUHILAKOAZ DUTEN IRITZIA. ESPAINIA



Euskal Autonomia Erkidegoko eta estatuko datuen arteko alde hori gertatzen da amaitu berri den hiruhilekoari buruzko iritzietan EAEko enpresek ezkortasun handiagoa erakusten dutelako. Zehazki, puntu horretan, EAEko erantzunen %55,0 ezkorrak dira eta %9,3 soilik da baikorra, gainerako %35,7ak egoera normala dela adierazten duen bitartean. Espainiako kasuan, ezkorrak %48,8 dira eta baikorrak, berriz, %10,0.

Sektore ekonomiko guztiak urtea hasi zuten mailetatik urrun badaude ere, nabarmentzekoa da

eraikuntzak estatuan duela posiziorik onena, bere indizea 120,0 baita, aurreko aldiekin alderatuta hobekuntza nabarmena lortuz eta ekonomia osoaren 105,5aren oso gaineratik. Merkataritza ere egoera on batean dago (111,8), baina beste zerbitzu jarduera batzuk batez besteko balioetatik urrun daude. Alde batetik, garraioa eta ostalaritza atzeratuta daude (94,5), eta gainerako zerbitzuak (102,8) batez bestekoaren azpitik daude. Industria da gehien kaltetutako beste sektoreetako bat (102,8).

Iturria: INE.